

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

SAN MARTZIAL 10



Egile eta data ezezagunak
(Ez dago espedienterik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Mehelin arteko eraikina, behe oina, lau goi oin (laugarrena Goicoak erantsi ahal izan zuen 1887an), gehi berriki altxatuko bi jasodura, mantsarda handi moduan. Berriki gaitu den eraikina. Fatxadan harlanduzkoa eta harlangaitz entokatua, nahastuta. Behe oina hareharriz xaflatuta berrezarri da (nolabaiteko erliebearekin). Apaingarriei eta sekzioari dagokionez San Martzial 8ren berdina da, baliteke proiektu komuna izatea.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (5. eta 6. goi oinak).

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrek: harlanduzko elementuak.

C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: ez, erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak izan ezik, hala badagokio.